

## 10. GIZALEGEZ

bekatu txikiak

maniak

filosfoen iritzia



Gizartean bizitzea korapilotsua da; arazo askoren iturri. Jakina denez, zenbat ate hainbat maratila daude eta zailak dira horiek elkarrekin ezkontzen. Auzi horietako batzuk gizalegez ebazten ditugu; beste batzuk, lege bidez.

Zailena zera da: erabakitzea noiz eta zenbateraino jo behar den legetara gizarte bizitza gobernatzeko. Are gehiago; batzuetan, zalantzak ere egon daitezke legetan jaso izan diren irtenbideak bidezkoenak diren.

## bekatu txikiak

Arazoetako batzuek gauza txikietan dute sorburua: norberarentzat ez baina albokoentzat garrantzia baduten gauzetan. Batarentzat garrantzi gabeko husteria dena, bestearentzat gizabide falta nabarmena da.

- Hemen dituzue jende artean oso ohikoak diren hainbat jokabide. Zeinek amorrarazten zaituzte gehien?

1. Garraio publikoa ordaindu gabe erabiltzea
2. Zigarro kondarrak edonon botatzea
3. Etxeko alfonbrak, mahai-zapiak... leihoan astintzea
4. Musika oso altu jartzea edozein ordutan
5. Edozein hormatan marraztu edota idaztea
6. Autoa edonon uztea, besteei ibiltzea galarazi arren
7. Zaborrak ontzitik kanpo uztea
8. Zakurrak ardurarik gabe kalean askatzea
9. Edozein kaletako izkinan txiza egitea

- Egotzi horietako bakoitzari letra bat (A, B edo C) jarraian dituzun irizpideak aintzat hartuta.

- A** Ez nau bereziki molestatzen.
- B** Niri berdin zait, baina ulertzen dut hainbatentzat jasangaitza izatea.
- C** Onartezina da.



bekatu txikiak

A - B - C

Garraio publikoa ordaindu gabe erabiltzea	<input type="radio"/>
Zigarro kondarrak edonon botatzea	<input type="radio"/>
Etxeko alfonbrak, mahai-zapiak... leihoan astintzea	<input type="radio"/>
Musika oso altu jartzea edozein ordutan	<input type="radio"/>
Edozein hormatan marraztu edota idaztea	<input type="radio"/>
Autoa edonon uztea, besteei ibiltzea galarazi arren	<input type="radio"/>
Zaborrak ontzitik kanpo uztea	<input type="radio"/>
Zakurrak ardurarik gabe kalean askatzea	<input type="radio"/>
Edozein kaletako izkinan txiza egitea	<input type="radio"/>

- Horiek bezala, beste asko dira guri eramaten zailak gertatzen zaizkigunak. Saia zaitetz ondorengo taulak betetzen, jasanezinak egiten zaizkizun jokabideak zerrendatuz. Ahal izanez gero, adibideren bat aipatu: lanean, etxean...

<p>A. ez nau bereziki molestatzen</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>B. niri berdin zait, baina ulertzen dut hainbatentzat jasangaitza izatea</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>C. onartezina da</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
--	--	--



- Taldeka jarrita, idatzitako jokabide horietako bost adostuko dituzue, beheko taulara gehitzeko. Ondoren, arrazoiak zehazten ahaleginduko zarete adibidean bezala; horretarako, ondoko zerrendak daudenak edota zuei bururatzen zaizkizuenak erabiliko dituzue.

## jokabidea

Zakurrak ardurarik gabe kalean askatzea

## arrazoiak

Zakur zalea naiz; zakur gehienak ez dira arriskutsuak eta ez dute molestatzen. Egun indarrean dauden legeetako batzuk gehiegizkoak iruditzen zaizkit.

Jokabide okerra da  
Ez da gizabidezkoa  
Ez da legezkoa  
Legearen aurkakoa ez den arren, ez da zuzena  
Ez da onargarria  
Jende askok ontzat hartzen duen arren, neuretzat arbuigarria da  
Ez da portaera gizalegezkoa  
Elkarbizitza zapuztu ahal du erraz  
Ez dio elkarbizitzari laguntzen  
Barkagarria eta ulergarria den arren, nik neuk ezin eraman dut  
Ez da oso eramangarria

- Azaldu zeuen jokabide eta arrazoi zerrendak beste taldeen aurrean. Besteenak entzun ahala, osatu zeuen taula.
- Aztertu, taldean, ikaskideek egindako proposamenak: ados zauden, zeinek ez... Amaitzeko, eman ikastaldearen aurrean komentatutakoaren berri.

## maniak



Aurreko jokabide gehienak, ohikoak izan arren, ez daude ongi ikusiak; hala ere, horiengatik kezu azaltzen bazara, bat baino gehiago izango dira "maniatikoa" zarela esango dizutenak.

122

- Hurrengo galderak taldean komentatu eta erantzuteko dira:

1. Uste duzue maniatikotzat jo daitezkeela lehen zerrendatutako moduko jokabideen aurrean deseroso sentitzen direnak?
2. Zer dira zuentzat "maniak"?
3. Non jarriko zenukete muga?
4. Aitortu ahal duzue maniaren bat?

- Film<sup>1</sup> batetik ateratako sekuentzia batzuk ikusteko aukera izango duzu. Bertan azaltzen diren maniez mintzatuko zarete, taldeka jarrita:

1. Ezagutzen al duzue antzeko kasuren bat?
2. Maniatiko batekin bizitzekotan, zein izan liteke "eramangarria"?

- Jarraian, maniak zer diren agertu nahi duen grabazioa<sup>2</sup> entzungo duzue. Bertan, beheko taulan dauden ezaugarrietako batzuk aipatuko dituzte, maniatiko patologikoa zein den zehazteko. Ausartuko al zinateke zein aipatuko dituzten esaten, saioa entzun gabe?

✓

<input type="radio"/>	Idea zehatzekoa
<input type="radio"/>	Kritikoa besteekin
<input type="radio"/>	Aktibitate ahulekoa
<input type="radio"/>	Idea finkoak ditu
<input type="radio"/>	Konpulsioz jokutzen du
<input type="radio"/>	Euforia neurrigabea
<input type="radio"/>	Harrotasun agresiboa
<input type="radio"/>	Berekiko konfidantza falta
<input type="radio"/>	Umore on ez kritikoa
<input type="radio"/>	Muga argiak behar ditu



- Entzun irrati-pasartea ea asmatu duzun.
- Irratsaioko esatariak galdera hauxe utzi du airean, mania arruntei buruz ari zela: **Maniaren neurria nork jartzen du? Noiz har dezakegu jokabide bat maniatzat?** Zerrendatu manien ezaugarriak.

manien ezaugarriak \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

- Irratsaioaren jarraipena<sup>3</sup> entzungo duzu eta solaskideek aipatzen dituzten ezaugarriak jasoko dituzu. Horrela, egin berri duzun zerrenda osatuko duzu.

manien ezaugarriak (jarraipena) \_\_\_\_\_

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Taldeka jarrita, hona hemen ulertutakoaren arabera osatu beharreko esaldi-zerrenda. Falta diren hitzak zein ote diren erabaki beharko duzue.

ezezegona / eragin / jokabideak / maniak / egiazko / jasangai-  
tzagoak /sakoneko / errotuago / sineskeriekin / finkoak /  
urduritasunarekin / ohiturak

1. Ideia \_\_\_\_\_ dira eta, batzuetan, konpulsioz egiten dira.
2. Ohikotik aparteko \_\_\_\_\_ izan ohi dira.
3. Mota eta gradu askotakoak daude; jasangarriagoak eta \_\_\_\_\_.
4. Batzuk \_\_\_\_\_ lotutako joerak izan daitezke; beste batzuk, patologia psikologiko baten seinale.
5. Norberaren \_\_\_\_\_ dira, besteek ez dituztenak.
6. Manien atzean egon daiteke \_\_\_\_\_ helburu edota arrazoiren bat, kontzientea ez bada ere.
7. Nork bere ohiturak ez ditu \_\_\_\_\_ maniatzat; besteek, ordea, erraz ikusi ahal ditu.
8. Askotan besteek esanda ohartzeko gara gure ohiturak, bene-benetan, \_\_\_\_\_ direla.
9. Besteekiko harremanetan \_\_\_\_\_ handia izan dezakete.
10. Besteengan halako \_\_\_\_\_ sortu ohi dute. Norberentzat denean ohitura soilak da; besteek eragiten dienean maniatzat har daitezke.
11. Adin batetik aurrera; beharbada, \_\_\_\_\_ egon daitezke.
12. Mania batzuek patuarekin eta \_\_\_\_\_ dute zerikusirik estua.



- Hemen dituzu hiru herritarrek komunikabideetan aditzera emandako kexuak. Lehenbizi, hirurak irakurri.

A

Azken bolada honetan hainbat eta hainbat dira Metroan ordaindu gabe sartzen diren gazteak eta ez hain gazteak. Hesiak ia arazorik gabe igarotzen dituzte eta aldian-aldian zentimo hainbat aurreztea lortzen dute. Haatik, denok ateratzen gara kalteturik beren jokabide horren ondorioz.

Uste dut azal-lodi horiei gauzak errazegi jartzen zaizkiela. Ea metroaren zuzendaritzak zerbait egiten duen horrelakoekin!

B.

Gezurra dirudien arren, ez dira gutxi beren leihoetan alfonbrak astindu, mahai-zapiak hustu edota erratzak haizatzen dituztenak. Ez diote begiratzen ez pasatzen denari, ez beren zikinkeriak biltzen dituen auzokoari... Udalak espresuki du debekatuta hala jokatzea. Gainera, ze behar dugu gaur egun halakorik egiteko, etxean denok xurgatzaile elektrikoa dugunean?

Uste dut neurri serioagoak hartu beharko liratekeela arau hau hausten dutenekin.

C.

Erretzaileak kexu dira gero eta murrizpen gehiago jartzen zaizkiolako tabakoari eta etengabe entzun behar dugu beren "eskubideen" aldarrikapena.

Haatik, beraiek ingurune itxi zein irekiak kutsatu egiten dituzte; beren eta besteen osasuna kolokan jartzen dute eta, gainera, bazter guztiak zikintzen dituzte.

Kondarrak eta errautsak edozein tokitan (haurren parkeak, bulegoetako tapizak eta hondartza bera ere) botatzen dituzte inolako ardurarik gabe. Uste dut badela garaia zerbait egiteko, eragiten dituzten arazoez ohar daitezen.

- Hiru taldetan jarriko zarete eta horietako kasuen aurka neurriak hartu edo zigorrak ezarri egingo dituzue. Segituan, ados jarri beharko duzue denon artean.

## filosofoen iritzia

Ikusi dugunez, ez da erraza erabakitzen zein behar duen gizabidearen eta zuzenbidearen arteko muga. Horretaz maiz eztabaidatu eta gogoeta egin da; baita iritzi ezberdinak azaldu ere. Bi filosofo ezagunen iritzia ezagutzeko aukera izango dugu orain: Fernando Savater eta Jose Antonio Marina.



- Hemen dituzue bi filosofoen lau ideia aipaturako gaiak. Taldeka irakurri eta eztabaidatu ondoren, hitz egindakoa azalduko du talde bakoitzak beste taldearen aurrean.

Egintza legezkoa izan arren, gerta daiteke zuzena ez izatea.

Egintzak legezkoa izan behar du, zuzena izan dadin.

Egintza zuzena ez bada, legearen aurkakoa izan behar du nahitaez.

Legearen aurkako egintza ez da inoiz zuzena.

- Ondoko testuak Fernando Savater eta José Antonio Marina filosofoek idatzitakoak dira. Bi taldetan banatuko zarete, talde bakoitzak irakasleak esango dizuen testuarekin lan egiteko.

#### Fernando Savaterren testua<sup>4</sup>

"Zuzenbide hitza erabili berri dut, eta uste dut apur bat lehenago ere erabili dudala. Badakizu zergatik? Hurkoaren lekuan jartzeko arte zailak hein handi batean zerikusia duelako aspalditik justizia deitzen zaion horrekin. Baina ez dihardut soilik justizia erakunde publikoari buruz (hau da, ezarritako legeei, epaileei, abokatuei... buruz), justiziaren bertuteari buruz baizik, hots: gizakiok, ondo bizi nahi badugu, dugun trebezia eta egin behar dugun ahalegina, gainerakoek gutaz espero dezaketena ulertzeko. Legeak eta epaileak saiatzen dira pertsonak gizartean bizi diren gainerakoei gutxienez galda diezaieketena obligaziozko gisa finkatzen, baina gutxieneko zerbait besterik ez da. Askotan gure jokabidea funtsean ez da zuzena nahiz eta legearen arabera jokatu eta kodeek diotena errespetatu, hau da, nahiz eta isunak ezarri ezin dizkiguten edo kartzelara eraman ezin gaituzten. Legeak ingurukoek zugandik ez Estatuarengandik edo epaileengandik espero dezaketenenaren laburtzapena edo soilpena besterik ez dira. Bizitza konplexuegia eta zorrotzegia da, pertsonak ezberdinegiak gara, batzuetan barnekoiegiak, eta, beraz, ezin dezakegu guztia jurisprudentziako liburuetan sar. Inor ezin daiteke zure ordezkari izan, eta, era berean, inor ezin daiteke zure ordezkari zuzena izan, zu zeu konturatzen ez bazara ondo bizitzeko zuzena izan behar duzula..."



José Antonio Marinaren testua<sup>5</sup>

"*Justizia* hitza beti izan da polisemikoa, esanahi hauek guztiak izan baititzake: bakoitzari dagokiona ematen dion jokaera, legea bete dadila bermatzen duen erakundea, eta zuzen jokatzeraz bultzatzen gaituen bertutea. Esanahi nagusia lehena da: bakoitzari berea ematea. Esan dugunez, arazoa da 'berea'k esan nahi duena zehaztea.

Zer da? Nork zehazten du? Hemen interesatzen zaizkigun bi aukerak besterik ez ditut aipatuko, kasu bakoitzari eta pertsona bakoitzari dagokiona Justiziak edo Zuzenbideak zehazten du. Gertatzen dena da bi figura horiek elkar jo dezaketela, esan baitezakegu, esan ere, egintza legezkoa dela baina ez zuzena. Legezkoak esan nahi du arau moralen aurkakoa".

- Irakurri ondoren, saia zaitzete bertan jasotzen diren ideia nagusiak ondoko koadroan zerrendatzen.

artikuluaren ideia nagusiak

Handwritten notes area with horizontal lines.

- Binaka jarriko zarete eta artikuluaren berri emango diozue elkarri.



- Hemen dituzu Jose Antonio Marinaren testuaren inguruko hainbat esaldi. Zein dira zuzenak pentsalariak dioenaren arabera?

egia ✓ gezurra ✗

J. A. Marinaren arabera, justizia hitzak esanahi guztiak izan ditzake.

Justizia, aldi berean, jokaera da; gainera, erakunde bat eta, bestalde, bertute bat ere bai.

Bere ustez, ezin da hiru esanahi horien artean nagusiena zein den esan.

Zaila ikusten du zehaztea zer den bakoitzari eman behar zaiona.

Zuzenbideari zein justiziari dagokie zehaztea zer den bakoitzari aitortu behar zaiona.

Arazoa da justiziak eta zuzenbideak elkar jotzen dutela aurrez aurre.

130

- Hona hemen Fernando Savaterren testua berridatzia, modu ulerterrazagoan jarrita. Zenbait esaldi, ordea, zuen esku gelditu dira. Aukeratu kasu bakoitzean egokiena zure iritziz.

Oraintxe bertan zuzenbide hitza erabili dut eta uste dut pixka bat lehenago ere erabili dudala. Badakizu zergatik? \_\_\_\_\_

1

Baina ez naiz ari bakarrik justizia erakundeari buruz (hau da, ezarritako legeei, epaileei, abokatuei eta abarrei buruz).

2

eta, horrekin batera, egin behar dugun ahalegina eta besteek gutaz espero dutena ulertzeko dugun trebeziari buruz.

Legeak eta epaileak saiatzen dira guztiontzat derrigorrezko egiten bakoitzak besteei gutxienez eskatu ahal dietena baina hori gutxienera zerbait besterik ez da.

3

Hau da, ezin izango dizkigute isunak ezarri edo ezin izango gaituzte kartzelara eraman egin dugunagatik, baina, hala ere, gure jokabidea, beharbada, ez da bidezkoa izango.

Legeek jasotzen dutena zera da: ingurukoek zugandik espero ahal dutena. Hori besterik ez.

4

Inor ezin daiteke zure orde zuzena izan, zu zeu konturatzen ez bazara ondo bizitzeko zuzena izan behar duzula.

1

a) Besteen lekuan jartzea, justizia egitearekin lotuta dagoelako nolabait.

b) Justizia besteen lekuan jartzeko balio duen artea delako nolabait.

2

a) Justiziaren bertuteari buruz ari naiz, hots, giza-kiok, ondo bizitzekotan, dugun trebeziari buruz.

b) Justiziaren bertuteari buruz ari naiz, hots, giza-kiok ondo bizitzeko dugun trebeziari buruz.

3

a) Askotan gure jokabidea legezkoa izango da eta kodeek diotenaren araberakoa, baina, hala ere, ez da zuzena izango.

b) Askotan gure jokabidea zuzena izango da eta kodeek diotenaren araberakoa, baina, hala ere, ez da legezkoa izango.

4

a) Denok desberdinak gara eta bizitza oso konplexua. Horregatik, ezin da dena jaso lege-liburuetan.

b) Denok desberdinak gara eta bizitza oso konplexua. Horregatik jaso behar da ahalik eta gehiena lege-liburuetan.

oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

